

# Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko dituzun testuei lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Proposamen horiek euskaltegiaren blogean aurkituko dituzu, B.2 mailako ikastorduen atalean. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

## JALGI HADI PLAZARA!

**Etxeko dekorazioari** lotutako ideiak:

- ✓ Zeure izena paper-mutur batean idatziko duzu. Ikaskideek ere horixe egingo dute. Izen guztiak poltsa batean sartuko ditu irakasleak, eta ikaskide baten paper-muturra aterako duzu. **Dekorazio-proposamen pertsonalizatua egingo diozu ikaskide horri**, balizko 30 m<sup>2</sup>-ko etxe bat janzteko, haren nortasuna eta gustuak kontuan hartuta. Idatziz egingo duzu, eta **posta elektronikoaren bidez edo whatsapp-ez bidaliko diozu**. Nahi izanez gero, bidali aurretik, emaiozu irakasleari, begiratu bat eman diezaion.
- ✓ Era berean, zeuk ere jasoko duzu ikaskide batek zuri egindako proposamen pertsonalizatua. Behin irakurrita, **ikaskide horri azalduko diozu zer iruditu zaizun**: zer gustatu zaizun, zer ez, ea zure gustuekin asmatu duen...
- ✓ Demagun etxeko dekorazioa aldatu nahi duzula. Demagun dirua ez dela oztopo. **Pentsatu nola dekoratuko zenukeen eta zer aldaketa egingo zenukeen**. Horrekin guztiarekin, grabatu audio edo bideo labur bat, eta igo [euskaltegiaren blogera](#). Nahi izanez gero, igo aurretik, emaiozu irakasleari, begiratu bat eman diezaion.
- ✓ Nola zeneukan dekoratuta gela txikitari/gaztetan? Eta orain? Ba al dago alde handirik? **Eraman itzazu klasera zeure gelari ateratako lehengo eta oraingo argazkiak** (ziur aski, txikitako/gaztetako argazkiren batean agertuko zara zeure gelan, ezta?), **erakutsiezazkiezu ikaskideei**, eta **azal diezaziezu zertan den ezberdina lehengo eta oraingo dekorazioa**.
- ✓ Dekorazioari buruzko **euskarazko webguneak arakatu eta eman ikaskideei lortutako informazioaren berri**. Era berean, balora itzazu: zein da erabilgarriena?; praktikoena?; baten bat erabiliko zenuke, zeure etxea dekoratu beharko bazenu?; zergatik?; euskarazko zer hitz edo kontzeptu dira berriak zuretzat? Hona hemen ideia batzuk:  
[www.generalinmobiliaria.com/blog/barrualdeen-dekorazioa/](http://www.generalinmobiliaria.com/blog/barrualdeen-dekorazioa/)  
[www.orbegozodek.com/index\\_eu.html](http://www.orbegozodek.com/index_eu.html)  
[www.gaztanagadekoratzalea.com/](http://www.gaztanagadekoratzalea.com/)  
[www.ezarri.com/eu/barne-dekorazioa](http://www.ezarri.com/eu/barne-dekorazioa)

**Antzinako baserri**ei lotuta:

- ✓ **Sartu** IKASBIL atarian, eta **egin** [Euskal baserriaren sorrera eta garapena](#) izeneko jarduera.

**Etorkizuneko etxe**ei lotuta:

- ✓ Nola biziko gara etorkizunean? Nolakoak izango dira etxeak? [Bideo honetan](#), Oier Ariño ingeniari industrialak adierazten du etxe *errekonfiguragarria* izango dela etorkizuneko etxea. **Ikusi** bideoa, eta **grabatu** audio labur bat, horren inguruan duzun iritzia azaltzeko.
- ✓ Etorkizuneko bizimoduaren eta etxeen inguruan HABEK prestatutako **azterketa-gaia** izango duzu langai. **Geratu** ikaskide batekin, eta, orriko bi gaiak zuen artean banatuta eta etxean prestatu eta garatuta, **eman** elkarri prestatutako ahozko testuaren berri.